

## Arrigorriagako Udal Euskaltegia

### TRANSFORMATU ESALDIOK

1. Denborarik edukiko banu, zapatak konpontzera eramango nituzke.

---

2. Guk zuentzat edariak ekarriko bagenitu zuek zer ekarriko zenukete?

---

3. Lagunek pasta guztiak eramango balituzte hemen ez litzateke ezer egongo.

---

4. Hori horrela balitz nork edukiko luke arrazoia?

---

5. Londonera joango bazina zer ekarriko zenuke handik?

---

6. Ni, zu banintz, badaezpada, euritakoa eta botak eramango nituzke.

---

7. Aitite-amamak bisitatzera joango bagina, zer eramango genuke?

---

8. Dirurik edukiko bazenu, zelako kotxea edukiko zenuke?

---

9. Zuek mendian perretxikotan ibiliko bazinete asko ekarriko zenituzkete

---

10. Lehengusinak gogorik eta diru nahikorik edukiko balu ume gehiago ekarriko lituzke.

---

---

**TRANSFORMATU ESALDIOK**

1. Denborarik edukiko banu, zapatak konpontzera eramango nituzke.  
DENBORARIK BANEUKA, ZAPATAK KONPONTZERA NERAMAZKE.
2. Guk zuentzat edariak ekarriko bagenitu zuek zer ekarriko zenukete?  
GUK ZUENTZAT EDARIAK BAGENEKARTZA, ZUEK ZER ZENEKARKETE?
3. Lagunek pasta guztiak eramango balituzte hemen ez litzateke ezer egongo.  
LAGUNEK PASTA GUZTIAK BALERAMATZATE HEMEN EZ LEGOKE EZER.
4. Hori horrela balitz nork edukiko luke arrazoia?  
HORI HORRELA BALITZ NORK LEUKAKE ARRAZOIA?
5. Londonera joango bazina zer ekarriko zenuke handik?  
LONDONERA BAZINDOAZ ZER ZENEKARKE HANDIK?
6. Ni, zu banintz, badaezpada, euritakoa eta botak eramango nituzke.  
NI , ZU BANINTZ, BADA EZPADA, EURITAKOA ETA BOTAK NERAMAZKE.
7. Aitite-amamak bisitatzen joango bagina, zer eramango genuke?  
AITITE-AMAMAK BISITATZERA BAGINDOAZ, ZER GENERAMAKE?
8. Dirurik edukiko bazenu, zelako kotxea edukiko zenuke?  
DIRURIK BAZENEUKA, ZELAKO KOTXEA ZENEUKAKE?
9. Zuek mendian perretxikotan ibiliko bazinete asko ekarriko zenituzkete.  
ZUEK MENDIAN PERRETXIKOTAN BAZENBILTZATE ASKO ZENEKARZKETE.
10. Lehengusinak gogorik eta diru nahikorik edukiko balu ume gehiago ekarriko lituzke.  
LEHENGUSINAK GOGORIK ETA DIRU NAHIKORIK BALEUKA UME GEHIAGO LEKARZKE.